# Emakumeentzako Jabetze Eskola

**Escuela de Empoderamiento para mujeres**

**Școala de emancipare a femeilor | École d´empowerment des femmes**

**Women´s empowerment school | مدرسة تمكين النساء**



**TOLOSA 2023-2024**

**Udazkena-Negua | Otoño-Invierno | Toamnă-Iarnă**
**Autumn-Hiver | Automne-Winter | شتاء خريف**

## Zer da jabetzea?

Jabetze terminoa esaten dugunean, banakako eta taldekako ikaskuntza eta kontzientziatze-prozesu bat adierazi nahi dugu, hain zuzen ere, mundu osoko gizarteetan sexismoak guri, emakumeoi, ezartzen digun diskriminazio eta gutxiagotasun-egoera salatzea, eta horren kontra borroka egitea ahalbidetzen digun prozesua.

## Zer da Jabetze Eskola?

Espazio hau emakumeon jabetzea eta parte hartze soziopolitikoa sendotzeko dago pentsatuta, gizarte justu, anitz eta osoagoa lortzeko. Ez da ohiko prestakuntza-leku bat. Jabetze Eskolan, Mugimendu Feministak garatutako jakintza eta produkzio kolektibo eta partekatutako metodologia erabiltzen dugu.

Metodologia horrek ahalbidetzen du emakumeek eta sexu-joera edo sexu-genero identitate askotariko kolektiboek bizi duten menpekotasun errealitateari izena jartzea, errealitate hori auzitan jartzea, eta irtenbideak proposatzea. Esperientziak eta jakintzak partekatzea da kontua, baina, baita ere, gorputzaz disfrutatzea, diskurtsoak, artea, kultura eta errebindikazioak produzitzea. Azken finean, bizi izatea munduaz dugun pertzepzioa aldatuko digun, eta, aldi berean, mundua aldatzeko tresnak emango dizkigun esperientzia bat.

## ¿Qué es el empoderamiento?

Llamamos empoderamiento al proceso de concienciación y aprendizaje personal y colectivo, a través del cual las mujeres hemos podido denunciar y luchar contra la situación de discriminación e inferioridad social que impone el sexismo en todas las sociedades del mundo.

## ¿Qué es la Escuela de Empoderamiento?

Este espacio está dirigido a potenciar el empoderamiento y la participación sociopolítica de las mujeres, para conseguir una sociedad más justa, diversa y completa. No es un lugar de formación típico. En la Escuela de Empoderamiento utilizamos la metodología de producción colectiva y compartida de saberes desarrollada por el Movimiento Feminista.

Esta metodología permite nombrar, cuestionar y proponer alternativas a la realidad de subordinación de las mujeres y de colectivos con orientación sexual o identidad sexo-género diversas. Se trata de compartir experiencias y conocimientos, pero también de disfrutar con el cuerpo, producir discursos, arte, cultura y reivindicaciones. En definitiva, se trata de vivir una experiencia que cambie nuestra percepción del mundo, y que, al mismo tiempo, nos dote de herramientas para cambiarlo.

# JARDUERAK / ACTIVIDADES

**Emakumeen arteko kantua berreskuratzen**
Recuperando el canto entre mujeres....4

**Batukada feminista** ....6

**Xilografia tailerra (linolio gainean): sormena eta aldarrikapenak plazara!** ....7

**Biodanza: Otra mirada** ....8

**Sormenezko argazkigintza ikuspegi feministatik**....9

**Nuestras emociones pintadas**....10

**Euskal emakume idazleen irakurketa feminista taldea** ....11

**Boxeo-tailerra /** Taller de boxeo.... 12

**Sormen akelarrea! Hartu pintzelak eta dibertitu!**....14

**Hil Arte Bizi: heriotzaren aurrean ere, geure erara** (2. zatia) .... 15

**Hilekoa, autoezagutza eta ziklikotasunari buruzko tailerra**
(11-14 urteko neska gazteentzat) .... 16

**Taller de manejo de herramienta de mano** ....17

**Grupo de Literatura de mujeres del mundo** ....18

**Gozamenaren bideak, desiraren bidezidorrak**
(18-30 urteko neska gazteentzat) .... 19

**Autodefentsa feminista** (18-30 urteko neska gazteentzat) .... 20

**«Sangre y resistencia. Políticas y culturas alternativas de la menstruación» liburuaren aurkezpena**....21

**Mahai-ingurua: Emakumeen eta feminismoaren memoria espazio publikoetan**
Mesa redonda: Memoria de las mujeres y del feminismo en los espacios públicos.... 22

## GURETZAKO (para nosotras): Jatorri anitzeko emakumeentzako gunea Espacio para mujeres de diversos orígenes .... 24

**Kosmetika naturala egiten ikasteko tailerra**
Taller de Cosmética natural.... 25

**Taller sobre Interseccionalidad y feminismo decolonial: de la teoría a la práctica cotidiana** ....26

---

**Izen-ematea eta matrikula**/ Inscripción y matrícula .... 27

---

# Emakumeen arteko kantua berreskuratzen

# Recuperando el canto entre mujeres



Betidanik emakumeen bizitzan kantuak sekulako presentzia izan du, bai pertsonalki bai kolektiboki. Tresna boteretsua izan da emozioak adierazteko, lan taldeak indartzeko, gure eskubideak aldarrikatzeko, istorioak kontatzeko, pozak ospatzeko edo gure hildakoei omenaldia egiteko.

Tailer hau ahots kantuari lekua eta denbora bat emateko jaio da. Hau egiteak ahalduntzen eta aberasten gaituelako. Ez da abesbatza bat izango. Ez da egongo ez partiturarik ez ahots ezberdinik. Proposamena da abestea sentitzeko. Ez gehiago, ez gutxiago.

**Formatzailea:** Ana Sanjose Amiano

**Egunak:** Urriak 16, 23; azaroak 6, 13 (astelehena). 4 saio

**Ordutegia:** 18:00-20:00

**Lekua:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania

**Matrikula:** 5€

---

El canto ha acompañado desde el principio de los tiempos a las mujeres tanto a nivel personal como grupal. Ha sido herramienta poderosa para expresar emociones, cohesionar colectivos laborales, reivindicar nuestros derechos, contar historias, celebrar alegrías o llorar a las personas muertas.

Este taller nace con el deseo de dar espacio y tiempo a las voces cantadas. Porque hacer esto nos empodera y enriquece. No será un coro. No habrá ni partituras ni diferentes voces. La propuesta es cantar para sentir. Ni más, ni menos.

**Formadora:** Ana Sanjose Amiano

**Días:** 16, 23 octubre; 6, 13 noviembre (lunes). 4 sesiones.

**Horario:** 18:00-20:00

**Lugar:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Idioma:** Euskera / Castellano

**Matrícula:** 5€



# Batukada feminista

Ikastaroaren helburuak dira emakumeon arteko harremanak eta elkartasuna sustatzea, musikaz gozatu eta gozaraztea, gure irudimena eta sormena garatzea. Horrez gain, auto-garapena eta taldekako jabetzea bultzatzea, emakumeok kulturan dugun parte hartzea indartzea, eta emakumeok eta feministok ikusiak eta entzunak izatea esparru publikoan.

**Formatzailea:** Ainara Sarasketa Alberdi

**Egunak:** Urriak 17, 31; azaroak 14, 28; abenduak 12; urtarrilak 9, 23; otsailak 6, 27 (asteartea). 9 saio

**Ordutegia:** 18:30-20:30

**Lekua:** Amarotz Auzo Elkartea

**Hizkuntza:** Euskara

**Matrikula:** 10€



# Xilografia tailerra (linolio gainean): sormena eta aldarrikapenak plazara!

Xilografia tailer honen bitartez, gure eskuekin dugun sortzeko ahalmenari bide emango diogu.

Antzinako teknika hau ikasteaz gain, bakarka nahiz taldean lan egingo dugu, irudi, aldarrikapen feminista eta hainbat mezu paperean eta oihalean estanpatuz.

Grabatuaren historian diren eta izan diren emakume artistei buruz ere arituko gara.

Kurtsoan eginiko estanpak erakusketa batean erakutsiko ditugu emakumeon artea plazaratzeko xedearekin.

Ikasle berriek edo ikastaro bakar batean parte hartu dutenek izango dute lehentasuna.

**Formatzailea:** Oihana Ugarte Iriarte

**Egunak:** Urriak 17, 24, 31; azaroak 7, 14 , 21, 28; abenduak 5 (asteartea). 8 saio

**Ordutegia:** 18:00-20:00

**Lekua:** Tolosako Kultur Etxea (Trianguloa)

**Hizkuntza:** Euskara

**Matrikula:** 10€



# Biodanza: Otra mirada

A través de la música, el movimiento y el silencio facilitaremos el contacto con las emociones y la existencia, ayudando al autoconocimiento y el crecimiento personal, para expresarnos con mayor libertad.

Las sesiones contienen una secuencia de ejercicios en función de la categoría de movimiento (ritmo, fluidez, levedad, potencia, ímpetu, eutonía...) y se realizan a nivel individual, en pareja y grupal.

No es necesario ningún conocimiento previo. En caso de alguna dificultad, consultad previamente y se valorará la posibilidad de adaptación de la sesión.

**Formadora:** Luz Clemente

**Días:** 18, 25 octubre; 8, 15, 29 noviembre (miércoles).
5 sesiones

**Horario:** 17:30-19:00

**Lekua:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Idioma:** Castellano

**Matrícula:** 10€



# Sormenezko argazkigintza ikuspegi feministatik

Adin guztietako emakumeei zuzenduriko ikastaro honetan, guk geuk erabakitako proiektu bat osatuko dugu elkarlanean. Mugikorra edo argazki kamera erabiliz, sormena landuko dugu, betiere ikuspegi feminista ardatz hartuta.

Zenbait teknika erabiliko ditugu, eta argazkigintzan eredu izan diren emakumeen lanak aztertu.

Parte hartzeko ez da behar aurretiazko ezagutzarik, beraz, hartu zure mugikorra edo kamera, eta etorri gurekin jolastera!

**Formatzailea:** Ura Iturralde Larrañaga

**Egunak:** Urriak 18, 25; azaroak 8, 15, 22, 29; abenduak 13, 20 (asteazkena). 8 saio

**Ordutegia:** 18:00-20:00

**Lekua:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Hizkuntza:** Euskara

**Matrikula:** 10€



# Nuestras emociones pintadas

Las mujeres solemos expresar con palabras las emociones que sentimos y a menudo no somos escuchadas ¿Y si a la voz, le añadimos la auto-observación y la pintura, para expresar lo que no podemos ni ponerle nombre? Miedo o alegría, confianza o angustia, inseguridad, energía...
A través de dinámicas corporales, pintura espontánea, retrato y autorretrato, expresaremos y gestionaremos nuestras emociones, trabajaremos el autoconocimiento y el desarrollo personal, mientras tejemos redes de apoyo entre nosotras para reconstruirnos colectivamente.
No necesitas saber pintar. ¡Ven a la aventura!

**Formadora:** Leire Markinez Calvo

**Días:** 18, 25 octubre; 8, 15, 22, 29 noviembre (miércoles). 6 sesiones

**Horario:** 15:00-17:00

**Lugar:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Idioma:** Castellano

**Matrícula:** 10€



# Euskal emakume idazleen irakurketa feminista taldea

Tolosako Udal Liburutegiarekin elkarlanean

Euskal eta zehazki euskarazko emakume idazleen lan garaikideak ikuspegi feminista batetik irakurtzeko tailerra izango da hau. Hala, azken urtean argitaratutako lanak irakurriko ditugu, egungo testuinguru eta bizipenetatik. Helburua da euskal emakume idazleak ezagutaraztea, eta egun garatzen ari diren kezka, diskurtso eta proposamenak denen artean hausnartzea eta horiek genero ikuspegi eta ikuspegi feminista batetik irakurtzea.

**Irakurriko dugun lehen liburua** (Liburutegian maileguan har dezakezue): *Bihurguneko nasa* - Uxue Apaolaza

**Formatzailea:** Oihana Iguaran

**Egunak:** Urriak 26, azaroak 30, urtarrilak 25, otsailak 29 (ostegu-na). 4 saio

**Ordutegia:** 18:00-20:00

**Lekua:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Hizkuntza:** Euskara

**Matrikula:** 5€



# Boxeo-tailerra

# Taller de boxeo



Boxeoari buruzko estereotipo ugari daude; besteak beste, gizonen indarraren beharra. Hala ere, gero eta emakume gehiagok egiten du boxeoa. Boxeo-tailer honetan, kirol honekin lehen harremana eginez, erakutsiko dugu emakumeok borrokalariak garela, boxeoa egiteko gaitasun tekniko ezberdinak ditugula, eta planteatu ditugun erronka pertsonal eta kolektiboei aurre egingo diegula.

Eta primeran pasatuko dugu!

**Formatzailea:** Ixa Rodriguez

**Eguna:** Urriak 19 (osteguna)

**Ordutegia:** 17:30-20:30

**Lekua:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania

**Matrikula:** Doan (aurrez izena eman behar da)

---

Existen numerosos estereotipos sobre el boxeo, entre ellos la necesidad de la fuerza de los hombres. Sin embargo, cada vez son más las mujeres que practican este deporte. En este taller de boxeo, haciendo un primer contacto con este deporte, demostraremos que las mujeres somos luchadoras, que tenemos diferentes capacidades técnicas para hacer boxeo y que vamos a afrontar los retos personales y colectivos que nos hemos planteado.

¡Y nos lo vamos a pasar genial!

**Formadora:** Ixa Rodriguez

**Día:** 19 octubre (jueves)

**Horario:** 17:30-20:30

**Lugar:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Idioma:** Euskera / Castellano

**Matrícula:** Gratis (previa inscripción)





# Sormen akelarrea! Hartu pintzelak eta dibertitu!

Ikastaro honetan zenbait teknika erabiliko ditugu, askotariko esparruetatik sormenera hurbiltzen lagunduko digutenak. Marrazkiaren, collagearen, marmolatzearen, akuarelaren, estanpazioaren edo liburu zabalgarrien bidez, sormenerako dugun ahalmenera hurbilduko gara. Emakume artisten lanak ezagutuko ditugu eta haien margolanak, konposizioak edo poemak hartuko ditugu abiapuntutzat. Tailer hau topagune bat da, partekatzeko une propio bat, eta horretarako ez da aldez aurretik esperientziarik behar. Hartu pintzelak eta has dadila akelarrea!

**Formatzailea:** Pili Aguado

**Egunak:** Urriak 26; azaroak 2, 9, 16, 23 (osteguna). 5 saio

**Ordutegia:** 18:00-20:00

**Lekua:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Hizkuntza:** Euskara

**Matrikula:** 10€



# Hil Arte Bizi: heriotzaren aurrean ere, geure erara (2. zatia)

Hil Arte Bizi tailerrek heriotzaren aurrean ahalduntzea dute helburu. Tailer hauen bigarren zati honetan, osasungintzari begira jarriko gara, eta Aurretiazko Borondateen Dokumentua ardatz hartuko dugu, baina horretara bakarrik mugatu gabe, osasunaren eta heriotzaren inguruan norberak dituen nahiak eta hartu ditzakeen erabakiak argitzen saiatuko gara. Heriotzaren aurrean ere, norberak bere era duelako. Eta taldean egindako lanarekin, beldurrak txikitu daitezkeelako.

Lehentasuna izango dute lehen zatian parte hartu dutenek.

**Formatzailea:** Nere Erkiaga

**Egunak:** Azaroak 7, 14, 21, 28 (asteartea). 4 saio

**Ordutegia:** 17:30 – 20:00

**Lekua:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Hizkuntza:** Euskara

**Matrikula:** 5€



# Hilekoa, autoezagutza eta ziklikotasunari buruzko tailerra

## (11-14 urteko neska gazteentzat)

Gazteria Sailarekin, Topagunearekin eta Tolosaldea Garatzeneko Aniztasun Sailarekin elkarlanean.

Emakumeen* hilekoarekin lotu dira gure ziklikotasunari, sexualitateari eta gorputzei buruzko ideia negatiboak eta tabuak. Eta ideia horiek gure gorputzean pairatzen ditugu; ezjakintasunez, beldurrez, minez... bizi ditugu.

Baina ziklikotasuna emakumeok* gure buruak ezagutzeko eta maitatzeko dugun gaitasun propioa da. Min edo deserosotasun horiek uxatzeko garaia da. Bi saio hauetan, taldearen babesean, zu zeu izango zara protagonista, zure gorputzarekin konektatzen eta gorputzari entzuten hasiko zara, eta zure behar eta emozioei dagokien lekua ematen.

Eta zu... ausartzen zara zure gorputzaren gaitasunekin konektatzera?

**Formatzailea:** Maialen Mujika Diaz

**Egunak:** Azaroak 9, 16 (osteguna). 2 saio

**Ordutegia:** 17:30-19:30

**Lekua:** Tolosako Kultur Etxea (Trianguloa)

**Hizkuntza:** Euskara

**Matrikula:** Doan (aurrez izena eman behar da)



# Taller de manejo de herramienta de mano

El objetivo principal es conocer la utilidad de herramientas de mano tradicionalmente masculinas y dominar su manejo para ser más autónomas en reparaciones de casa, y más creativas y activas con el bricolaje. Se mostrará el uso de diferentes taladros, brocas, niveles, atornilladoras, tijeras pelacables, sargentas, destornilladores con su gran diversidad de puntas, llaves, martillos, hoja de sierra, manejo de caladora y amoladora, etc.

**Formadora:** Carmen Melchor

**Día:** 11 noviembre (sábado)

**Horario:** 9:30-14:00

**Lugar:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Idioma:** Castellano

**Matrícula:** 5€



# Grupo de Literatura de mujeres del mundo

**En colaboración con la Biblioteca Municipal de Tolosa**

El camino que recorremos, otras mujeres lo han limpiado y hecho firme. Junto a nosotras, otras mujeres recorren caminos paralelos. Medir sus pasos, aprovecharlos, es la mejor manera de dar valor a su experiencia, a sus goces y sufrimientos. Sus estrategias creativas y vitales, la imaginación de sus propuestas, enriquece las nuestras. Conocerlas es conocernos un poco más a nosotras mismas. Literatura de Mujeres del Mundo es viajar sin fin por la obra de escritoras de diferentes países, de diferentes culturas y mirar por la ventana de sus preocupaciones y de sus condiciones.

**Primer libro que leeremos** (podéis tomarlo en préstamo en la biblioteca): *De la boca del caballo sale la verdad* – Meryem Alaoui

**Formadora:** Mertxe Tranche Iparraguirre

**Días:** 15 noviembre, 13 diciembre, 17 enero, 14 febrero, 6 marzo (miércoles). 5 sesiones

**Horario:** 18:00-20:00

**Lugar:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Idioma:** Castellano

**Matrícula:** 5€



# Gozamenaren bideak, desiraren bidezidorrak

## (18-30 urteko neska gazteentzat)

Ez naiz iristen orgasmora. Bakarrik bai, zurekin ez. Zurekin bai, bestearekin ez… Bukatu duzu? Zer da txortan egitea? Gutxi egiten dugu larrutan. Gogo ezberdinak ditugu.

Gure adierazpen erotikoak estutzen dituzten ereduei buruzko hausnarketan murgilduko gara. Hortik abiatuta gure burua birpentsatu, gure gorputzarekin konektatu eta haren aukerak, gogoak eta abar irakurriko ditugu, topaketa erotikoa jolas partekatu bihurtzeko.

Helburu nagusia norberak bere burua pentsatzeko eta ulertzeko giltzarriak eskuratzen hastea eta norberaren desiretara hurbiltzeko bideak bilatzeko aukera sortzea da. Aurkezpen teorikoz lagunduta, denon artean solaserako gune bat sortuko dugu, introspekziorako unetxoaz gain, eta emakumeak estutzen gaituzten eredu zurrunez ere hitz egingo dugu.

**Prestatzaileak:** Maialen Dorronsoro Soraluze eta Elene Jimenez Jimenez (Sexune elkartea)

**Eguna:** Urtarrilak 11 (osteguna)

**Ordutegia:** 17:30-20:00

**Lekua:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Hizkuntza:** Euskara

**Matrikula:** Doan (aurrez izena eman behar da)



# Autodefentsa feminista

## (18-30 urteko neska gazteentzat)

Hobeto identifikatu nahi al dituzu eraso matxistak? Aurre egiten ikasi nahi duzu? Libre sentitu nahi duzu zure bizitzan eta kalean? Uste duzu ezin izango duzula zeure burua defendatu? Pentsatzen duzu hori zuri bakarrik gertatzen zaizula?

Saio honek autodefentsa feministari buruzko esperientziak eta ideiak partekatzeko espazio segurua da. Bertan, beldurrak eta amorrua bezalako emozioak landuko dira, horiei aurre egiteko baliabideak eman eta egunerokotasunean jasotzen diren erasoak identifikatzen ikasiko da. Helburua, autoestimua indartu eta ahalduntze prozesuan bidelagun izatea izango da.

**Formatzailea:** Emagin Elkartea

**Eguna:** Urtarrilak 22 (astelehena)

Ordutegia: 17:30-20:30

**Lekua:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Hizkuntza:** Euskara

**Matrikula:** Doan (aurrez izena eman behar da)



# «Sangre y resistencia. Políticas y culturas alternativas de la menstruación» liburuaren aurkezpena

«Sangre y resistencia» liburuak zenbait gizarte- eta kultura-aldaketa aztertzen ditu. Horretarako, abiapuntu dira hilekoaren politika eta kultura alternatiboei buruzko gorputz-etnografia. Liburuaren orrialdeetan barna, egileak sakon aztertzen ditu hilekoari lotutako teknologia feministetan, gorputz-irudíteria alternatiboetan zein osasunari lotutako pentsamenduak eta praktikak, eta askotariko estrategia feministak eta ezagutzak kolektiboki eraikitzeko prozesuak nabarmentzen ditu. Hori guztia liburuaren haria izanik, generoaren, osasunaren, kontsumo-gizartearen eta politikaren inguruko aldaketa orokorragoei begiratzen die liburuak.

Miren Guilló liburuaren egilea eta Laura Muelasen arteko solasaldia

**Eguna:** Urtarrilak 31 (asteazkena)

**Ordutegia:** 18:00-20:00

**Lekua:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Hizkuntza:** Euskara

**Matrikula:** Doan (aurrez izena eman behar da)



# Mahai-ingurua: Emakumeen eta feminismoaren memoria espazio publikoetan

# Mesa redonda: Memoria de las mujeres y del feminismo en los espacios públicos



Hirigintza feministak hiri eta herri seguruagoak eta berdinzaleagoak sustatzen ditu. Besteak beste, emakumeek eta feminismoak espazio publikoetan (kaleetan, plazetan, parkeetan, ekipamenduetan...) egiten dituzten banakako eta taldeko ekarpenak ikusaraztea eta aitortzea bultzatzen du.

Oraingoan, Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat udalerritan izandako esperientziak ezagutu eta horiei buruz hausnartuko dugu, baita gure inguruan hasitako urratsak nola jarraitu ere.

**Hizlariak:** Parean Elkartea; Mertxe Tranche Iparraguirre (Ikerlaria); Zaida Fernandez Perez (Ermuako Emakumeen Asanblada); Miren Urkijo (Donostiako Emakumeak eta Hiria Foroa)

**Aurkezlea:** Nekane Artolazabal

**Eguna:** Otsailak 27 (asteartea)

**Ordutegia:** 18:00-20:00

**Lekua:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania

**Matrikula:** Doan (aurrez izena eman behar da)

---

El urbanismo feminista promueve ciudades y pueblos más seguros e igualitarios. Entre otras medidas, impulsa la visibilización y el reconocimiento de las aportaciones individuales y colectivas de las mujeres y del feminismo en los espacios públicos (calles, plazas, parques, equipamientos...).

En esta ocasión conoceremos y reflexionaremos sobre diferentes experiencias en varios municipios de Gipuzkoa y Bizkaia, y cómo continuar los pasos iniciados en nuestro entorno.

**Ponentes:** Parean Elkartea; Mertxe Tranche Iparraguirre (Investigadora); Zaida Fernandez Perez (Asamblea de Mujeres de Ermua); Miren Urkijo (Foro Mujeres y Ciudad de Donostia)

**Presenta:** Nekane Artolazabal

**Día:** 27 febrero (martes)

**Horario:** 18:00-20:00

**Lugar:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Idioma:** Euskera / Castellano

**Matrícula:** Gratis (previa inscripción)



# GURETZAKO:

## Jatorri anitzeko emakumeentzako gunea

## (Para nosotras): Espacio para mujeres de diversos orígenes

Parte hartu nahi baduzu jatorri anitzeko emakumeentzako aisialdi, laguntza eta elkartasun espazio batean, jo dezakezu jarduera hauetara.

*Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun Saila, Tolosako Udaleko Berdintasun Sailaren laguntzarekin*

**Harremanetarako:**

646057080

migrazioa@tolosaldea.eus

Si estás interesada en participar en un espacio de ocio, apoyo y solidaridad entre mujeres de orígenes diversos, puedes acudir a estas actividades.

*Departamento de Migración y Diversidad de Tolosaldea Garatzen, con el apoyo del Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa*

**Contacto:**

646057080

migrazioa@tolosaldea.eus

# Kosmetika naturala egiten ikasteko tailerra

# Taller de Cosmética natural



Tailerraren helburuak dira, ondo pasatzeaz gain, larruazalaren ezaugarrien eta garbitasunaren garrantziaz jabetzea, eta zenbait produktu natural ezagutzea eta egitea. Horrekin batera, arlo honi lotutako praktika ekologikoak eta autosufizientziazkoak bultzatuko ditugu.

Teoriaren oinarri batzuk azaldu behar dira beti, baina tailerra praktikoa eta entretenigarria izango da. Zenbait formulari jarraituz, ur mizelarra, esfoliatzailea eta krema bat egingo ditugu.

Lehentasuna izango dute aurretik sendabelarren ikastaroan parte hartu dutenek.

**Prestatzailea:** Bidatz Sasiain

**Eguna:** Urriak 20 (ostirala)

**Ordutegia:** 17:00-20:00

**Lekua:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania

**Matrikula:** Doan (aurrez izena eman behar da)

---

Los objetivos del taller serán, además de divertirse, tomar conciencia de la importancia de las características y limpieza de la piel, y conocer y elaborar diferentes productos naturales. Con ello también estaremos impulsando prácticas ecológicas y de autosuficiencia en este ámbito.

Siempre hay que explicar algunas nociones de teoría, pero el taller será práctico y entretenido. Siguiendo diferentes fórmulas, elaboraremos agua micelar, exfoliante y una crema.

Tendrán preferencia quienes hayan participado anteriormente en el curso de plantas medicinales.

**Formadora:** Bidatz Sasiain

**Día:** 20 octubre (viernes)

**Horario:** 17:00-20:00

**Lugar:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Idioma:** Euskera / Castellano

**Matrícula:** Gratis (previa inscripción)





# Taller sobre Interseccio-nalidad y feminismo decolonial: de la teoría a la práctica cotidiana

La Asociación Bidez Bide desde el año 2009 realiza asesoría y acompañamiento a los procesos de profesionalización, formación, reivindicación de los derechos -fundamentalmente- de las mujeres migradas que trabajan como internas en el cuidado de personas dependientes y que aportan a la sostenibilidad de la vida en Gipuzkoa.

Este taller tiene el objetivo de compartir información sobre los enfoques y metodologías de nuestro trabajo, desde la mirada del feminismo decolonial y la interseccionalidad. Asimismo, contribuir a la reflexión, al diálogo intercultural y el reconocimiento mutuo de saberes otros, de resistencias y prácticas políticas.

Va dirigido a mujeres de organizaciones feministas y a aquellas que acompañan procesos de intervención con mujeres migradas.

**Formadoras:** Katia Reimberg y Soraya Ronquillo (Asociación Bidez Bide)

**Día:** 6 de Noviembre (Lunes)

**Horario:** 17:00-19:00

**Lugar:** Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Idioma:** Castellano

**Matricula:** Gratis (previa inscripción)



# Izen-ematea eta matrikula

Izen-ematea interneten bidez egin behar duzue, eta jarduera hasi baino bi egun lehenago arte daukazue aukera.

Hauxe duzue esteka:
**tolosakoudala.org/berdintasuna/**

Edo QR hau eskaneatuta:

Internet bidez izena emateko zailtasunik izanez gero, informazioa eta laguntza eska ditzakezue telefonoz deituta edo posta elektroniko bat bidalita.

• **Tolosako Kultur Etxea:**
**943 67 03 83**

• **Tolosako Berdintasun Saila:**
**berdintasuna@tolosa.eus**

Izena eman ondoren, matrikula ordaindu ahal izango duzue Kultur Etxean, kreditu-txartelaren bidez.

# Inscripción y matrícula

La inscripción se realizará por Internet hasta dos días antes de que comience la actividad.

A través de este enlace:
**tolosakoudala.org/berdintasuna/es/**

O escaneando este QR:

En caso de tener dificultades para la inscripción por Internet, podéis solicitar información y ayuda llamando por teléfono o enviando un correo electrónico.

• **Casa de Cultura de Tolosa:**
**943 67 03 83**

• **Departamento de Igualdad de Tolosa:**
**berdintasuna@tolosa.eus**

Después de realizar la inscripción se podrá abonar la matrícula en la Casa de Cultura, mediante tarjeta de crédito.



## Jarraiguzu / Síguenos:

Facebook: Tolosa Berdintasuna

Twitter: @BerdinBerdin



TOLOSA berdinzalea

Tolosaldea aniztasuna garatzen

Gipuzkoako Foru Aldundia

Ilustrazioa: Pili Aguado / Diseinua: Tania Oliveros